

ITXAS = ERTCEAN ⁽¹⁾

(Euskal-Esnalea'ren sariketan lenengo sariz saritutako olerkia)

Eguzkia ia ilean
itxasoai musuka...

Ilunabara...

Aitzak itxas=ertzean
aztindutzen oruka
itxas zakara.

Txistuka eldu dira
arai biziz beteta
itxas=ontziak...

Ori pozal Begira
kaian dantzan ume ta
gazte guziak.

Kai bertatik orduan
lurin=ontzi aroa
jendez beteta,
txistuka, ilun zizuan
amets beltz bat lakoa
Ameriketa.

Negarez kai=aldera
zuzendurik begiak
ontzi gañean...

Baña, ontzia aurera...

...Deadarka guziak
itxas=ertzean.

Ara, ontzi aroa
sartu da su ta gazez
itxas=nasian...

...Etxera andre gaxoa
kai=aldetik, negarez
hide guzian.

Bestetzuk bitartean
kaian eta ontzian
dantzan t'ojuka...

...Eguzkia ia ilean
gori=gori itsasoai
azken=musuka.

.....

¡Ori bai bizitzaren
antza samiña...!

Bizitzari musuka
eriotz miña...

Biotzaren kaian
atsegin=ontzitxo
sartzen danean,
itxaropen aroa
kaiatik, aratsean,
igesi doa...

Zalekeri ta ametez
beterik doa,
urulira ta gauez...
iontzi gaxoa...!

Biotzaren kaian
gero ixkanbila
gogoa irten danean
atsegin=bila...

Ta bitartean, beriz,
egi zorotza!
bizitzari musuka
aiz eriotza...

JAUREGI TAR L.

(1) De un libro próximo a publicarse del poeta renteriano Luis de Jáuregui.



Yo querer casar contigo, pero no tener «diñeros».
~No importa, «Pachicu», otros que eran ricos, «tamién»
decir lo mismo que tú, por no casar...



LOS QUE VIGILAN

El perro al gato,
el gato al ratón
y este que aquí ves
al curda y ladrón.